


M_{LH4}

2018-2019



Izen-deiturak:

Ikastetxea:


Taldea/Gela:


Herria:

Eguna:

Matematika gaitasuna

Lehen Hezkuntzako 4.a





Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Batzuek lau aukera dituzte erantzuteko, eta aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu eta biribil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra.

Adibidez:

Zenbat da $2 + 5$?

A. 2

B. 6

☒ C. 7

D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu biribil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala

Zenbat da $2 + 5$?

☒ A. 2

B. 6

☒ C. 7

D. 11

Eragiketak eskatu egiten den galderetan bakarrik idatzi beharko dituzu. Galdera horietan, horrelako lauki bat agertuko da:

Eragiketak:

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Kalabaza

lazko udan, Enekoren aitatzik kalabazak bildu zituen baratzetik. Aitatzik-amatziek marmeladak eta bizkotxoak egiten dituzte kalabazekin. Enekoren aitak haziak gorde zituen, eta, elkarrekin, marrazki bat egin zuten, Enekok eskolara eraman zuena.



1. Kalabazak eta potoak zer forma geometrikoren antza dute? Aztertu irudiak erantzuteko.

- A. Zirkuluarena eta zilindroarena.
- B. Esferarena eta zirkuluarena.
- C. Esferarena eta zilindroarena.
- D. Zirkunferentziarena eta zilindroarena.



2. Aitatzik kalabaza bizkotxoa prestatu du, eta amatxik irudian falta den zatia jan du. Aztertu irudia erantzuteko.

Amatzik jan duen zatia osatzen duen angelua, nolakoa da?

- A. Zuzena.
- B. Kamutsa.
- C. Laua.
- D. Zorrotza.



Aitatxik bizkotxoa egiteko erabili duen errezeta hauxe da:

Kalabaza bizkotxoa egiteko osagaiak

- 250 g kalabaza.
- 250 g irin.
- 200 g azukre.
- 3 arrautza (arrautza bakoitzak 60 g ditu).
- 70 ml olio (60 g).
- Legamia: 12 gramo.

- 3.** Aitatxik eta Enekok elkarrekin bizkotxo bat prestatu dute. Enekok klasekoekin janen du bere urtebetetzean. Zenbat gramo pisatuko du bizkotxoak?




Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Eragiketak:

Bizkotxoak gramo pisatuko du.

4. Enekoren amatxi kalabaza husten ari da. Barruko haziak kentzen ditu prestatu duen zukuarekin betetzeko. Zure ustez, zein izanen da kalabazaren edukiera? Aztertu irudia erantzuteko.

- A. $\frac{1}{2}$ litro baino gutxiago.
- B. $\frac{1}{2}$ litro eta 4 litro bitartean.
- C. 4 litro baino gehiago eta 6 baino gutxiago.
- D. Sei litro edo gehiago.



250 ml

5. Enekok kalabaza-haziak eraman ditu klasera. Irakasleak haziekin ondoko irudia egin du:




Eragiketa hauetako zeinek adierazten du irudiko kalabaza hazien kopurua?

- A. $(6 + 3) \times (5 + 2)$
- B. $(6 \times 2) + (5 \times 3)$
- C. $(6 + 2) \times (5 + 3)$
- D. $(6 \times 3) + (5 \times 2)$


- 6.** Enekok eta bere aitak gelara eramateko marrazki bat egin dute. Marrazkian simetria ardatzarekiko simetrikoak diren bi kalabaza agertzen dira (erdiko marra gorria ispilu bat balitz bezala).

A. 1. marrazkia. B. 2. marrazkia. C. 3. marrazkia. D. 4. marrazkia.


1. marrazkia




2. marrazkia



3. marrazkia



4. marrazkia



- 7.** Enekoren aitatzik baratzetik hartu duen kalabazak zenbat gramo pisatzen duen kalkulatu behar duzu. Hona hemen zenbait argibide:

- Batekoen zifra bederatzi da.
- Milakoen zifra batekoen zifraren herena da.
- Hamarrekoen zifra milakoen zifraren bikoitza da.
- Lau zifren batura hogeita da.

Idatzi laukitxo bakoitzean dagokion zifra.

--	--	--	--

gramo

Baratzeak

Jende askok lantzen du baratzea eta barazkiak biltzen ditu familiarako: tomateak, piperrak, letxugak, kalabazak, zainzuriak...



8. Martinek baratze bat erosteagatik *hamabi mila eta bederatzi koma hirurogeita hamabost* euro ordaindu ditu. Nola idazten da kopuru hori zifretan?

- A. 12 009,75 euro.
- B. 12 090,75 euro.
- C. 12 900,75 euro.
- D. 120 009,75 euro.



9. Martinen baratzea laukizuzena da eta haren neurriak hauek dira: 45 m luze eta 25 m zabal. Baratzea hesiz inguratzea erabaki du, inor sar ez dadin. Hesi metro batek 95 euro balio du. Zenbat ordainduko du hesiagatik, guztira?




Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Eragiketak:

Hesiak euro balioko du, guztira.

- 10.** Martinek Miren kontratatu du hiru egunez baratzean hesia jartzen laguntzeko. Begira ezazu lan ordutegia apuntatzeko Martinek erabili duen koadernoak.



LAN ORDUTEGIA

Astelehena: 10:00etatik 17:00ak arte

Asteartea: 08:30etik arratsaldeko 2ak arte

Asteazkena: Goizeko bederatziak eta erdietatik 13:00etara

Martinek lan egindako ordu bakoitzeko 18 € ordainduko dizkio. Lan egindako denbora guztia kontuan hartuta, zenbat euro ordainduko dizkio?



Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Eragiketak:

Martinek, guztira euro ordainduko dizkio Mireni.

Irudi honetan Anaren baratzearen plano bat duzue. Martinen auzokoa da Ana. Irudia hurrengo bi galderei erantzuteko erabiliko duzu.

Ohar zaitez planoan karratutxo berdinetan banatuta dagoen lauki-sare bat dela.



11. Zenbat karratutxo ditu piperren eremuaren azalerak?

- A. 27 karratutxo.
- B. 30 karratutxo.
- C. 32 karratutxo.
- D. 35 karratutxo.

12. Anak letxuga-eremuko karratutxo bakoitzean bi letxuga-landare jarriko ditu, handitutako irudian ikus daitekeen bezala. Letxuga-landare bakoitzak 1,50 € balio du. Zenbat kostako zaizkio baratzean jarriko dituen letxuga-landare guztiak?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Karratutxo 1



Eragiketak:

Letxuga-landare guztiak euro kosta zaizkio.

13. Egunsentian, Aingeru eta Mertxe Sartagudan duten baratzera joan dira, zainzuriak biltzera. Zainzuriak hartzen amaitu dutenean, Mertxek bere erloju digitalari begiratu dio; irudian agertzen duen ordua markatzen du. Zainzuriak biltzen 35 minutuz egon badira, zer ordutan iritsi dira baratzera?



- A. 07:35
- B. 07:45
- C. 07:55
- D. 08:55

14. Familiarendako goizean bildu dituen zainzuriak prestatu ditu Aingeruk. Begiratu irudia eta aukeratu erantzun zuzena.

- A. Esan daiteke azpiko zainzuriak modu paraleloan daudela.
- B. Esan daiteke azpiko zainzuriak modu ebakitzailan daudela.
- C. Esan daiteke azpiko zainzuriak modu perpendikularrean daudela.
- D. Esan daiteke gaineko eta azpiko zainzuriak modu perpendikularrean daudela.



- 15.** Aingeruk tomate bat, piper bat eta patata bat hartu ditu, plater bat prestatzeko. Tomate, piper eta patata bera erabiliz, begiratu egin dituen hiru pisaldiak.

Kalkulatu tomateak zenbat gramo pisatzen duen.



Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Eragiketak:





Tomateak gramo pisatzen du.

16. Julenek San Adriango baratzean hurrengo barazkiak landatu ditu:

Letxugak	Kalabazak	Piperrak	Tomateak
30	Dozena bat	Dozena eta erdi	Bi dozena

Zein grafikok irudikatzen ditu ongi taulako datuak?

- A. A grafikoa.
- B. B grafikoa.
- C. C grafikoa.
- D. D grafikoa.



Trikuak

Trikuak mendian edo haztegietan bizi diren animaliak dira. Animaliak eta landareak jaten dituzte: intsektuak, zizareak, gaztainak, ezkurak...



Zenbait natura eremutan trikuak askatzen dituzte, birpopulatzeko.


- 17.** Triku haztegi batean 280 triku eme eta 152 triku ar daude. 8 eremutan askatuko dituzte kopuru berdinetan banatuta. Guztira, zenbat triku askatuko dituzte eremu bakoitzean?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

Eragiketak:

Guztira, eremu bakoitzean triku askatuko dituzte.

- 18.** Begiratu zenbaki-zuzen hau eta bertan idatzi irudiko trikuak zenbat arantza dituen.



- 19.** Triku bat zulotik atera da eta 12 metro eta 25 zentimetro ibili da zizareak aurkitu arte. Ondoren, ur-putzu batera iritsi arte ibili da. Guztira, 37 metro ibili bada, zenbat zentimetro egin ditu zizareak aurkitu dituenetik ur-putzura iritsi arte?

- A. 1225 cm
- B. 1475 cm
- C. 2475 cm
- D. 2585 cm



- 20.** Biologo batek frogatu du trikuek 4800 animalia (intsektuak, arratoiak, sugeak, zizareak, txinurriak) jan dituztela astebetean.


Gainera, badaki jandako animalietatik $\frac{4}{5}$ intsektuak izan direla.

Zenbat intsektu jan dituzte?

- A. 960 intsektu.
- B. 2880 intsektu.
- C. 3840 intsektu.
- D. 6000 intsektu.



- 21.** Hurrengo grafikoan trikuek haztegia jan dituzten elikagaiak ageri dira.



Zein da gehien jan duen eta gutxien jan duen elikagai kopuruaren arteko diferentzia?

- A. 25 unitate.
- B. 100 unitate.
- C. 125 unitate.
- D. 225 unitate.

